



OÑATI
dabilen herria



OÑATIKO UDALA

ALKATE DEKRETUA

Nik, Iزارo Elorza Arregik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

Agente lehen lanpostu betetzeko lehiaketa bereziaren deialdira aurkeztutakoen onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea eta Balorazio Batzordeko kideak izendatzea.

2020ko azaroaren 19ko Tokiko Gobernu Batzordearen erabaki bidez, 2 Agente lehen lanpostu betetzeko lehiaketa bereziaren deialdia eta prozesuaren oinarri arautzaileak onartu ziren.

2021eko urtarrilaren 5eko GAO-BOG-an argitaratu zen erabakia eta EAO-BOEn urtarrilaren 25eko dataz.

2021eko otsailaren 22an izena emateko epea bukatu zen eta hautagai bakarrak eman zuen izena.

Oinarrietako Bostgarren atalean balorazio batzordearen osaketa jasotzen da:

5.1. Deialdi honetako Balorazio Batzordea honako hauek osatuko dute:

- Presidentea, Oñatiko Udaltzaingoaren burua.
- Poliziaren Euskal Akademiako kide bat.
- Udalak proposatutako bi kide.
- Idazkaria, Udaleko kide bat.

Ikusita 16/1993 DEKRETUA, otsailaren 2koa, zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzkoa, eta zehazki 14. eta 20. Artikuluak diotena.

Goian aipaturikoa ikusirik, nik, Oñatiko Alkate naizen honek, legeak ematen dizkidan eskumenak erabilita, honen bidez

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- 2 Agente lehen lanpostu betetzeko lehiaketa bereziaren deialdira aurkeztutako hautagai onartuen eta baztertuen zerrenda onartzea.

ONARTUTAKOAK

***4977**

Bigarrena.- Hautagaiek, Euskal Herriko Aukeraketa eta Prestakuntza Araudiaren 44. Artikuluan agertzen denez, 10 egun balioduneko epea izango dute eskabidean egin dituzten akatsak konpontzeko.

Hirugarrena: Hautaketa-prozesu honetako Balorazio Batzordeko kideak izendatzea:

Batzordeburua:

Titularra: Idoia Lazpita Bengoa, Oñatiko Udaltzainburua.

Ordezkoa: Eñaut Unamuno Muguruza, Oñatiko udaltzaina.

Batzordekideak:

Batzordekideak:

Titularra: Angelica Bucarito Achabal.
Ordezkoa: Roberto Blanco Orozco.

Titularra: Ander Okiñena Perez de Albeniz.
Ordezkoa: Lander Urigoitia Lopez.

Titularra: Aitor Escalante Erro, Beasaingo Udaltzainburua.
Ordezkoa: Iker Barriocanal Vitoria, Beasaingo Agente Lehena.

Idazkaria:

Titularra: Ana Jesús Cortabarría Santos, Oñatiko Udaleko administraria
Ordezkoa: Blanca Olalde Inza, Oñatiko Udaleko administraria.

Laugarrena.- Prozesu honek sortuko dituen gastuak Uoan-etorriak eta bertaratzeak) baimentzea.

Bostgarrena.- Erabaki hau iragarki-taulan eta www.onati.eus webgunean argitaratzea.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2021eko urriaren 28an.

ALKATEAK



Izaro Elorza Arregi